



SDEIBAR

HAUTESKUNDE-PROZESUAREN OINARRIAK

1. 13 kontseilari izendatuko dira.
2. 27 hautagai aurkeztuko dira 13 posturako.
3. Ezin da posta bidez edo urrunetik botorik eman.
4. Agertzeko eskubidea dute euren akzioak Akzio Izendunen Erregistro-liburuan akziodunen batzarra egin baino bost egun lehenago erregistratu dituzten akziodunek.
5. Akziodunak batzarrera bertaratu ahal dira edo ordezkotza beste pertsona bati eman, nahiz eta pertsona hori akzioduna ez izan; horretarako Klubak akziodun bakoitzari bidaliko dion Asistentzia/Eskuordetze-txartela bete behar dute. Ez da beharrezkoa Asistentzia/Eskuordetze-txartela aurkeztea ordezkaria denean ordezkatuaren ezkontidea, aurrekoa edota ondorengoa, ezta ordezkariak agiri publikoan emandako ondarea administratzeko ahalorde orokorra duenean ere, betiere inguruabar horiek akziodunen batzarrean egiaztatzen direnean, familia-liburua edo notarioaren ahalordea aurkeztuz.
6. Klubak Asistentzia/Eskuordetze-txartela igorriko du, kopiarik egin ahal ez izateko baldintza tekniko egokiekin.
7. Asistentzia/Eskuordetze-txartelarekin batera, eranskin moduan bidaliko dira gai-zerrenda eta bozkatzeko jarraibideen eskaera, akziodunak nahi izanez gero emateko.
8. Akzioduna batzarrean agertuz gero, automatikoki baliorik gabe geratuko da Asistentzia/Eskuordetze-txartela.
9. Kontseilari bakoitzaren izendapena banan-banan bozkatuko da. Boto-prozedura errazteko, gainera, botazio banandua egiteko aukera eskainiko da, Kandidaturaka.



SDEIBAR

- 10.** 13 postu eta 27 hautagai daudenez, bateraezintzat joko da 13 hautagai baino gehiagoren alde boto ematea. Horrela, 13 hautagai baino gehiagoren aldeko botoak baliogabeak izango dira.
- 11.** Hautagaien alde bozkatzeak, gainerako hautagaien kontra botoa ematea esan nahi du, akziodunak berariaz abstentzio-eskubidea erabili edo boto zuria ematen ez badu.
- 12.** Boto gehien jasotzen dituzten 13 hautagaiek SDEko Administrazio-kontseiluko kide bilakatuko dira, betiere aldeko botoak gehiago direnean kontrako botoak baino.